

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko komertzio
eta zerbitzuen gida



Eibarren egindakoak



1905



GURE PASIOAREN SORLEKUAN PRODUKTU BAKOITZA SORTZEN DA

AURKIBIDEA

Eibarren
egin-
dakoak

2026ko
GIDA

005-087

088-144

eta kitto!
euskara elkarteak

Argitaratzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarteak **Argitaratze-data:** 2025eko abendua

Publizitatea: Ane Lizarralde, Ander Fernandez

Diseinua eta maketazioa: Irune Jaio

Azala: Irune Jaio **Administrazioa:** Marisol Uriarte

Erredakzio-taldea: Silbia Hernandez, Maider Aranberri eta Ana Aizpurua

Banaketa-ardura: Idoia Labado

Inprimategia: GERTU **Lege Gordailua:** SS-01351-2019

@etakitto

@gaztekitto



Laguntzaileak:



Eibarren egin- dakoak

**Eskerrik asko Eibarko
Udaleko Armagintza Museoari
argitalpen hau egiteko
eskainitako laguntasunagatik
eta irudiak eta testuak gure
esku jartzeagatik.**



ARMAGINTZAREN MUSEOA



EIBAR MARKAREN INDARRA

**Egiten da pistola
eskopeta ariña,
fundizioko bihar
grabauan ere, gauza fiña.**

**Eibarko semiak
Ein zazue ahalegiña,
ikusi deixen umek
gurasuak egiña.
Eibar zer dezuten
da gauza jakiña,
Gipuzkoa barruko
herririk haundiña.**

**Egiten da bizikleta,
josteko makiña,
laister egingo degu
automobilla.**

Anbrosio Atxa "Itxaso"ren berbak eta Andres Garate "Beltxi"ren doinua dituen kantu ezagun honetan islatzen da Eibarko herriaren izaera eta nortasuna. Nortasun hori, zalantza barik, industriak baldintzatu du betidanik. Esku artean daukazuen gida honetan Eibarko iragan industrialari begira jarri gara, Eibarko tailerretan egindako produktuen zerrenda luzetik batzuk aukeratu eta zuei erakusteko.





**EIBAR
ARMAGINTZARENGATIK
EZAGUNA IZAN ARREN,
BENETAKO HAZKUNDEA
1960 INGURUKO BOOM
INDUSTRIALAREKIN
BATERA AILEGATU ZEN.**





Eibar eta industria elkarrekin lotuta egon dira betidanik, herria armagintzaren eta artisautzaren inguruan sortu eta garatu baitzen. Erdi Aroko lehen tailer txikietatik hasita, eibartarren trebetasunak eta berrikuntzarako joerak industria-ehun sendoa sortu zuten mendeetan zehar. XX. mendearen lehen erdian metalgintzak eta mekanizazioak hartu zuten protagonismoa, eta herria "Armagintzaren Hiria" izenarekin ezagutzen hasi zen. Hala ere, benetako jauzia 1960 inguruko boom industrialarekin ailegatu zen: modernizazio prozesuak, makina berrien inportazioak eta lan-esku espezializatuaren ugaritzeak hazkunde ekonomiko ikusgarria ekarri zuten. Garai hartan sortu edo sendotu ziren enpresa askok Eibar Euskal Herriko industrializazioaren erdigune bilakatu zuten. Boom hark herriaren egitura soziala eta ekonomikoa eraldatu zuen, eta gaur egun ere industriak, nahiz eta bestelako sektoreekin uztartuta, Eibarren eta eibartarren nortasuna eta garapenaren oinarri izaten jarraitzen du. Hamarkada honetan ekoiztutako produktu berriek orduko eibartarren berrikuntzarako grina islatzen dute. Armagintzan, pisu arinagoa eta ergonomia hobea zuten pistola berriak garatu ziren, diseinu industrialaren estandar modernoetara egokituta. Aldi berean, makinaria eta etxeko tresnerian ere berrikuntza handiak izan ziren: Alfaren josteko makinetan, adibidez, modelo doto-reak, ondo zaindutako diseinuekin eta formatu trinkoarekin merkaturatu ziren; eta Lambretta Eibarren bidez, motozikleten muntaketak mugikortasun iraunkorraren garapenean ekarpena egin zuen.



60KO

HAMARKADA ZORIONTSUA

Eibarko industriak 1960ko hamarkadan ezagutu zuen bere loraldirik handienetakoa, eta garai horrek markatu zituen herriaren nortasuna eta ekonomiaren bihotza. Tradizio luzea zuen armagintzaren eta metalgintzaren oinarritik abiatu, hainbat enpresa sendotu eta berriak sortu ziren, nazioarteko merkatuetara jauzi eginez. Garai hartako izen nabarmenen artean, Astra-Unceta y Cía, Star Bonifacio Echeverria eta Llama-Gabilondo y Cía armagintza sektorean nabarmentzen ziren, pistola eta arma arinen ekoizpenean nazioarteko ospea lortuz. Bestalde, makina-erremintan, Alfa eta Orbea konpainiek modernizazio sakona abiatu zuten, hasiera batean arma-

gintzatik zetorren ezagutza mekanikoa industria zabalago batera bideratuz.

Diseinuaren aldetik, Eibarko produktuak funtzionaltasuna eta estetika uztartzen hasi ziren, nazioarteko joeren eraginpean baina bertako ingeniariaren zehaztasuna galdu gabe. Metalgintzako kalitateak, formaren sinpletasunak eta erabiltzailearen esperientzia kontuan hartzeak industriaren marka bereizgarri bihurtu ziren. 1960ko hamarkadako loraldia, beraz, ez zen ekoizpen bolumenaren hazkundea izan soilik: berrikuntza, diseinuaren garrantzia eta industria jakintzaren sakontzea uztartu zituen, Eibar Euskal Herriko industriaren bihotz gisa sendotuz.





**GEHIENETAN EZ ZIREN ARGIA
OFIZIALETAN AGERTZEN, BAI
HALA ERE, EMAKUMEEN LAN
EZINBESTEKOIA IZAN ZEN
EIBARKO FABRIKETAN.**



ARMAGINTZAREN MUSEOA

Eibarko lehen Arma Museoa eibartar talde batek abiarazi zuen, Armeria Eskolarekin batera, XX. mende hasieran. 1914ko ekainaren 24an inauguratu zen Armeria Eskola, eta bertan museoa ere zabaldu zuten. Armeria Eskolaren orduko museo hark 580 arma zituen orduan, arma luzeak eta motzak, baita arma zuriko sei modelo ezberdin ere. Museoa sortu ondoren, bilduma aberasten joan zen, Lehen Mundu Gerran Eibarren egin ziren arma guztien modeloekin. Arma horiek Julian Etxeberria Armeria Eskolaren lehen zuzendariak eskuratu zituen. 2007ko urtarrilaren 18an zabaldu zuten gaur egungo museoa, armei eskainitako aretoekin. Gaur egun museoa osatzen duten gainontzeko espazioak, Eibarko industriari eskainitakoak barne, 2009ko maiatzaren 13an zabaldu zituzten.

Gaur egun, Armagintzaren Museoa udal mailako museo-ekipamendua da, eta aurretik Aguirre y Aranzabal eskopeta tailerra hartu zuen Portalea eraikineko bosgarren solairuan kokatzen da. Museoak solairu horretako 1.200 metro karratuak hartzen ditu eta horietatik 1.000 metro karratu erakusketa-espaziorako erabiltzen dira.

Museoaren ardatz nagusia arma-bildumak eta Eibarren egindako produktuek osatzen dute, hala nola bizikletak, motoak, josteko makinak... Helburu nagusia da arma-tradizio handiko herri baten memoria historikoa eta industria-ondarea gordetzea eta zabaltzea, eta bisi-tariari XIV. mendetik gaur egunera arte Eibarko industriak izan duen historiaren bilakaera ezagutaraztea, horretarako prestatutako ibilbidea eskainiz.



SOLAC



HAMARKADA
1970

OLLA MODELOA

Mota: EGOSKETA GELDORAKO ELTZE ELEKTRIKOA

Materialak: ZERAMIKA, METALA ETA PLASTIKOA



Kozinatu moteleko eltze hauek egosketa programatzeko aukera ematen diote erabiltzaileari, 80-100 gradu zentigraduko tenperatura konstanteen bidez. Honelako lapikoetan egindako gisatuek bizitza osoko zaporeak ekarriko dizkigute gogora.

Mota honetako lapikoak 70eko hamarkadan merkaturatu ziren, Naxon Utilities Corporationen eskutik. Urte batzuk geroago Solac ere hasi zen ekoizten. Lapikoak bi osagai dauzka: batetik, zeramikaz osaturiko egitura bat, zeinean elikagaiak sartzen diren; bestetik, metalezko oinarri bat, korrante elektrikoaren bitartez beroa sortzea ahalbidetzen duena.



Solac enpresa 1916. urtean sortu zen Eibarren, eta bertan jarraitu zuen, hasiera batean Matsarian eta geroago Txonta kalean, 2003. urtera arte. Urte horretan, Gasteizera eraman zuten, ordurako enpresaren planta nagusia han baitzegoen. Solac betidanik egon zen etxetresna elektrikoaren ekoizpenarekin lotuta. Hasieran kafeterak eta plantxak egiten zituzten. Denborak aurrera egin ahala, beraien ekoizpena dibertsifikatzea erabaki zuten. Eta horrela, 1955. urtean, ogi txigorgailuak egiten hasi ziren. Poliki-poliki Solac marka handituz joan zen eta 1979. urtean hidropresiozko lehendabiziko kafetera sortu zuten eta, urte batzuk geroago, 1983. urtean, esnea berotzeko merkaturako lehendabiziko gailua.

Solac kalitate handiko produktuak eskaintzen dituen enpresa bat da eta, beraz, esan daiteke Eibarren historian zehar egin diren lan finen eredu dugula.

B.H



1959

GIMNASIA MODELOA

Mota: BARRURAKO BIZIKLETA ESTATIKOA

Materialak: ALTZAIRUA, GOMA ETA LARRUA



BH (Beistegui Hermanos) siglek Eibarren dute jatorria. 1909an sortu zuten Domingo, Juan eta Cosme Beistegui anaiek, hasieran armak ekoizteko. Lehen Mundu Gerraren ondoren, armagintzaren krisiak bultzatuta, 1923an bizikletak egiten hasi ziren. Enpresa azkar garatu zen, txirrindularitza talde bat ere sortuz, eta 1959an, Eibarren espazio falta zela eta, Gasteizera joan ziren. Eibartik joan zen lehen enpresa handienetakoa izan zen, eta gaur egun ere marka ezaguna da, batez ere mendiko bizikletetan aitzindaria izateagatik. 2012tik, ekoizpena Portugal eta Txinan egiten da.

Aurkezten den pieza hau BH Gacela modelo estatikoa da, 1959an Gasteizen ekoizitakoa, eta Gasteizko fabrika berrian egindako lehenbiziko bizikleta estatikoetako bat izan zen. Hozte sistema mekaniko baten bidez funtzionatzen du: pedalei eragitean marruskadura-indarra baliatzen du erresistentzia sortzeko, eta hori eskulekuen artean dagoen pieza birakari baten bidez erregula daiteke.



Bizikleta hau berde argiz margotua dago, malgukidun larruzko jarleku gorri batekin eta esku-leku metalikoekin. Aurreko gurgpilean katea eta freno daude, eta kate-estalkiak "Gacela" marka eta gazela baten irudia erakusten ditu. Txasisean pegatina zaharrak daude, enpresaren logotipo klasikoarekin (txirrindulari gorri bat) eta ekoizpenaren datuekin: Gasteiz, 1959.

Gainera, bizikletaren egitura soldadura elektrikoaren teknika erabiliz egina da, hau da, piezak soldadura elektrikoaren bidez bateratuak daude. Aurrealdean hiru elementu bereizgarri ditu: 30 minutuko tenporizadore mekanikoa, abiadura-neurgailua eta kilometro-kontagailua. Atzealdean, berriz, giltza erregulagarria dauka, esku-lekuen eta jarlekuaren altuera erabiltzailearen arabera doitzea ahalbidetzeko.

Ez dago zalantzarik: hau txirrindularitzaren historiako altxor bat da, garai baten industriaren, kirolaren eta diseinuaren arteko lotura bikainaren adibide.

NAI



1970

NAI PATIN MODELOA

Mota: IZOTZETARAKO BOTADUN PATINAK

Materialak: LARRUA, METALA



Lehen patinak hezurrezko lamak edo puntak ziren, ez gaur egungoen antzeko hortzekin, Europa iparraldeko herrialdeetan izotz gainean mugitu ahal izateko asmatu zena. Iturri batzuen arabera, Kristo Aurreko denboretatik erabiltzen ziren, baina ez zuten egun daukaten itxura hartu XIX. mendera arte (hasieran hortzak hezurrez egiten ziren eta patinak oso deserosoak ziren erabiltzeko). Gorpildun patinak, aldiz, XVIII. mendean azaldu ziren estreinakoz. Kontuan izan behar dugu hasiera batean patinen beheko aldea plataforma antzeko bati lotua zegoela eta uhalen bidez lotzen zela zapatarekin. Zapatan bertan txertatutako patinak joan den mendean asmatu ziren, baina horren aurretik modelo ezberdin (eta seguruenik lesio) asko egon zen.

Esku artean daukagun pieza, argi ikusten denez, izotzetarako patin pare bat da, zehazki, mota klasikoko izotzetarako patin pare bat (beste bi modalitate ere badaude; hockeyan erabiliak eta abiadurazkoak). Hortza guztiz zuzena ez den altzairu tenplatuzko pieza bakar batek osatzen du, aurreko aldean zazpi hortzez osatutako zerra daukana. Gorpildun patinetan leku horretan freno badago ere, izotzezko patinetan ez da zerra horretarako erabiltzea gomendatzen, eta normalean patinaje artistikoko zenbait irudi egiteko baino ez da erabiltzen; esaterako jauzi pikatuak. Goiko aldea bota zuri altu batzuk dira, jatorrizko lokarriekin. Ondo begiratu gero, goiko aldean lokarriak kako bidez lotzen direla ohartuko gara, oinari askatasuna eman baina aldi berean ondo eusteko. Botak larru oso zurrunez eginda daude, orkatilak bihurritzea ekiditeko. Aipagarria da, halaber, patinaren beheko aldea torloju bidez dagoela lotuta zapatara.

Bitxikeria moduan, patinaren beheko aldean "ANOETA" berba azaltzen da, agian Gipuzkoako izotz gaineko pista iraunkor bakarra bertan dagoelako eta patin hauek han erabili zirelako. Hala ere, hipotesi bat baino ez da.

Horrez gain, hortzean grabatu bat ere badauka, patinen ekoizlea Eibarko NAI enpresa izan zela jakiteko balio diguna. NAI tailerra 50eko hamarkadan sortu zuen Carlos Narbaizak. Eibarren hainbat kokaleku ezberdin izan zituen, eta denetarik ekoiztu zuten: patinak, gurpil-oholak, automobilgintzarako pieza txikiak...

A. GARMENDIA



HAMARKADA
1960

LUME MODELOA

Mota: ESKUZKO GARBIGAILUA

Materialak: ALUMINIOA EDO ALTZAIRU GALBANIZATUA



Litekeena da 50. hamarkadaren amaieran egiten hastea, baina, gehienbat, 60ko hamarkadan zehar ekoiztu ziren Eibarren, A. Garmendiaren tailerrean, Lume markak patentatuta. Funtzionamendua nahiko intuitiboa da: ur beroarekin bete, arropa eta xaboia sartu, eta manibelaz bueltak eman. Gero, arropa atera, akclaratu eta eskegi.

Haren itxura deigarria da hasiera-hasieratik. Ohiko garbiketa-makina baten itxura izan beharrean, tripode baten gainean muntatutako esfera metaliko bat gogorarazten du, albo batetik irteten den biradera batekin.

Goiko aldean estalki hermetiko bat dago, arropa, ur beroa eta xaboia sartzeko. Ez du elektrizitate-rik behar: garbiketa besoaren indarrez egiten da, biradera biratuz barruko danborra birarazteko. Mugimendu horrekin, uraren eta xaboiaren nahasketa astintzen da, eta arropak garbitzen dira talka eta mugimendu etengabearen bidez.

Lehen zikloa amaitzean, erabiltzaileak xaboi-ura husten du eta prozesua ur garbiarekin errepikatzen da xaboia kentzeko. Ez dauka zentrifugatze funtziorik, eta, beraz, arropa eskuz bihurritu behar da. Hala ere, bere garairako irtenbide burutsua eta eraginkorra zen, batez ere etxe askok oraindik elektrizitate edo etxetresna elektriko modernoak ez zituzten eta.



Bere diseinu esferikoarekin eta egitura sinplearekin, Lume artisau-sormeneko eta etxeko asmatzeko garaia zen. Trantsizio-sinboloa izan zen: eskuz egindako garbiketaren eta urte batzuk geroago iritsiko ziren lehen garbigailu elektrikoen arteko zubia. Gaur egun, aparatu horiek bildumako benetako piezak dira, euskal ondare industrialari eskainitako museo eta erakusketetan kontserbatzen direnak, eguneroko asmatzeko etxeko lana arintzen nola lagundu zuen erakusteko.

ALFA



HAMARKADA
1960

20 MODELOA

Mota: PEDALEZKO ETXEKO JOSTEKO MAKINA

Materialak: BURDIN URTUA, ALTZAIRU KROMATUA, LATOIA



Alfa 20 josteko makina, 1950eko eta 1960ko hamarkaden artean egina, burdinurtuzko pieza sendoa zen, urre koloreko apaingarriak zituen beltz distiratsuz esmaltatua. Bere diseinuak antzinako Singer amerikarren estetika klasikoa jarraitzen zuen, baina nortasun propioa zuen: lerro dotoreak, "Alfa Marka Erregistratuaren" logotipo zirkularra eta eskuzko edo pedalezko mugimendua ahalbidetzen zuen alboko bolante handia.

Bere barne-mekanismoa guztiz metalikoa zen, eta horrek ia suntsiezin bihurtzen zuen. Transmisio mekanikoz funtzionatzen zuen, pedalari edo kanpoko motorrari konektatutako larruzko uhal baten bidez. Puntada zuzena egiteko aukera ematen zuen, zehaztasun eta erresistentzia handiz, eta horrek ezinbesteko tresna bihurtzen zuen etxeko jostunentzat nahiz tailer txikietarako.

Alfaren 20 familia hainbat azpimodeloz osatua zegoen (20, 20K, 20N...), eta bereziki baloratu zen, oso erraza zelako mantentze-lanak egitea: nahikoa zen aldian aldian martxan jartzea eta engranajeak garbi mantentzea, hamarkadetan funtzionatzen jarrai zezan. Makina horietako asko gaur egun ere martxan daude, irauteko pentsatutako ingeniariartza baten lekuko.



SERVETA INDUSTRIAL



HAMARKADA
1970

HONDA PC 50 MODELO PROTOTIPOA

Mota: ZIKLOMOTOR ARINA

Materialak: ZERAMIKA, METALA ETA PLASTIKOA



1970eko hamarkadan, egoitza Eibarren duen Serveta Industrial, S.A. enpresak Lambretta scooterrak ekoiztetik harago zabaldu zuen bere jarduera, ziklomotor arinen munduan murgiltzeko. Lizentzia edo kolaborazio tekniko baten bidez, Ltd. Servetak Hondaren PC50 ereduan oinarritutako prototipoak fabrikatu zituen, lizentziapean. Horien artean Honda PC 50 nabarmendu behar da, lau aldiko motor-ziklomotor txiki bat, isila, fidagarria eta kontsumo txikikoa.



Honda PC 50aren prototipoak diseinu erraza eta funtzionala zuen. Egitura gorritz margotutako altzairuzko tutu-formako bastidore batek, krema koloreko lohi-babesak eta larru sintetiko beltzezko bi aldeko eserleku batek osatzen zuten. Arina eta maneia garria, ibilgailuak apenas gainditzen zuen 50 kilogramoko pisua. 49 cc-ko motor monozilindriko bat zuen, airez hoztua, 45 km/h-ko abiadura har zezakeena eta oso kontsumo txikia zuena, 1,5 litro inguru 100 kilometroko.

Bere ekoizpena mugatua izan zen, eta ale batzuk, hemen erakutsitakoa kasu, aurre-produkziooko prototipoei dagozkie, probetarako edo azoka industrialetan aurkezteko erabilitakoak.

Gaur egun, hirurogeita hamarreko hamarkadako industria modernizatzeko ahaleginaren lekuko da ziklomotor hau, baita nazioarteko lankidetzak fabrikazio nazionalen teknologia berriak sartzeari ahalbidetu zuen aro baten lekuko ere. Ondare-balio bikoitza du: teknikoa, segmentuan aitzindari izan zen lau aldiko motorra duelako, eta sinbolikoa, eguneroko mugikortasun-objektu irisgarri eta hurbila izan zelako.

IRAZOLA



H A M A R K A D A
E Z B E R D I N A K

JUMBO, PREMIUM, FULGOR MODELOAK

Mota: BIHURKINAK

Materialak: METALA, EGURRA, PLASTIKOA



Bihurkina eskuzko tresna erraz bat da, torlojuak estutu eta askatzeko maniobra erraz bat egiteko balio duena. Hainbat formatako altzairuzko kirtena eta hagaxka ditu, erabili beharreko torloju-motaren arabera. Irazola enpresan ohikoa zen hagatxoak molibdeno-banadio-aleakziozko altzairuzko barretatik abiatzea; barra horiek gero, tratamendu termiko egokia jasotzen zuten, azkenik, azaleko tratamendu termikoa ematen zitzairen. Hagaxka horiek ere punta beltzarekin kromatu ziren.



Kirtenean daude aldaketa garrantzitsuenak. Kirtenak zurezkoak ziren hasieran, baina 1965ean eboluzio bat izan zuten, plastiko hori gardenez egiten hasi baitziren. Aurrerago, 1975ean, Fulgor modeloa kaleratu zen, eta diseinu ergonomikoa goa zuen karamelu-kolore laranjaren alde egin zen, tamainagatik eta eskura hobeto egokitzen zelako. Hainbat urtez ikertu ondoren, injekzio bidez kirtenarentzat bi material desberdin aplikatzea lortu zen, mundu-mailako berrikuntza gisa: plastiko gogorreko nukleoa eta eskuarekin kontaktuan zegoen kanpoaldeko zati batean elastomero biguna. Horrela, aparteko ergonomia baten bidez, esfortzu txikiagoko estutze maila altuagoak lortu ziren. Aurrerapen teknologiko hori Jumbo ereduan aurkeztu zen hasiera batean, 1992ko Koloniako Azokan, eta eragin mediatiko handia izan zuen. Gero, 1994an, injekzio bikoitze teknologia berrirako injekzio-makineria espezifiko eta automatizatua erabiliz, Premium eredu merkaturatu zen, onarpen eta barnerrazte handiarekin, bai merkatu nazionalean bai esportaziokoan. 1995ean, "International design year book"-ek mundu-mailako diseinurik onenetariko baten gisa hautatu zuen.

EL CASCO



HAMARKADA
1960

M 83 MODELOA

Mota: KURRIKA GRAPAGAILUA

Materialak: BURDIN URTUA, ALTZAIRU KROMATUA, LATOIA



M-83 tenaza-grapagailuak kobre, nikela eta kromo matezko bainu-azalera du. Altzairuz egina eta eskuz leundua dago. 25 orri grapatu ditzake aldi berean, El Casco 23. zenbakiko grapak erabiltzen ditu, eta 100 grapako karga-edukiera du.

"Olave, Solozabal y Cía, S.A. Manufacturas El Casco" enpresa 1920ko irailaren 27an sortu zuten aurretik "Orbea y Cía" enpresan armagintzan aritutako bi langilek, Juan Olave eibartarrak eta Juan Maria Solozabal markinarrak. Hasiera-hasieratik, kalitate handiko "Smith & Wesson" motako errebolber oszilakorrak fabrikatzeari ekin zion. 1928tik 1930era bitartean, zenbait patente lortu zituen errebolber oszilakorretan berrikuntzak eta hobekuntzak egiteagatik, 1925ean "Bety" marka eta 1933an "Standard" marka erregistratuz. Bere ekoizpena Eibarko Proben Bankuaren kontrolpean jarri ez zuen sinaduretako bat da, eta bertan egindako armak "Ignacio Ugartechea" enpresak merkaturatu zituen, 1928az geroztik bere jabetzakoa den "El Casco" markarekin. 1930ean armak egiteari laga zion, bulegoko materiala fabrikatzen hasteko: grapagailuak, zorrozkaileak, zenbatzaile mekanikoak eta bulegoko tresnak, nazioartean ospe handia duten "El Casco" markakoak denak.



G.A.C.



HAMARKADA
1980

MOBYBOARD MODELOA

Mota: PATINETEA

Materialak: ZURA KONTRATXAPATUA



G.A.C (Garate, Anitua y Compañía) Eibarko enpresa ospetsua izan zen XX. mendeko euskal industriaren historian. 1892an sortua, hasieran arma eta pieza mekanikoen fabrikazioan aritu zen, baina laster bizikleta eta motozikleten ekoizpenari ekin zion, Eibar eta inguruko herrietan garatzen ari zen industria aurreratuaren testuinguruan.

Testuinguru horretan jaio zen G.A.C Mobyboard, oinarekin bultzatutako partinetea, gaur egungo skate klasikoen antzekoa. Ez zuen motorik; mugimendua erabiltzailearen oreka eta bultzada propioaren bidez lortzen zen. Mobyboardek taula arina, gurpil sendoak eta egitura metaliko sendoa zituen, eta bere garaiko gazteen artean aisialdirako eta kirolerako produktu moderno gisa aurkeztu zen.



G.A.C Mobyboard ez zen produkzio masiboko artikulua izan, baina Eibarko enpresaren sormenaren eta berrikuntza-gogoaren adierazgarri bikaina da. Garai hartan, skate-kultura oraindik hastapenetan zegoen Europan, eta G.A.C bezalako fabrikatzaileek mekanizazio tradizionala eta kirol-diseinu berriak uztartzen jakin zuten.

Gaur egun, Mobyboard bezalako piezak euskal industriaren eta diseinuaren historiako elementu bereziak dira: erakusten dute nola fabrikatzaile txikiek, Eibarko lantegietan lan eginez, teknologia berriak eta aisialdi modernoa uztartzen saiatu ziren, munduko joera berrien aurretik.



JAZ[®] 100
1974 - 2024

SURFACE EXPERTS

**Azaleren
tratamenduan
espezialistak**

Garbiketa, testurizazioa eta bizarra kentzea
mota guztietako materialetan

Azitaingo industrialdea, 4

Tel. +34 943 120 60
info@jazzsurface.com

The advertisement features a close-up of a JAZ 100 industrial surface treatment tool, which is black with a red handle and a silver motor. A person wearing a red and white protective suit is holding the tool. The background is a plain, light-colored wall.



Azpiri

Eibar · Donostia · Amorebieta

The advertisement shows a modern interior space with a large, circular, illuminated mirror on the wall. Below the mirror is a long, low wooden table with a textured surface. On the table are several white ceramic vases and a small potted plant. To the left, there is a large window with a grid pattern. The lighting is warm and ambient.



since 1930

SIBARIS

WINE

by Coloniales

*Nahi duzun ardoa
aurkituko duzun lekuan*

Barrena Kalea 46, 20600 Eibar info@clubsibaris.com 943 120 202

ESPECIALISTA EN VINOS Y ALIMENTACION SELECCIONADA
Coloniales
Anselmo González
1930
CASA FUNDADA EN 1930



Zabala
Comercial

OSTALARITZA
ARTIKULUEN
SALMENTA,
MUNTAIA ETA
KONPONKETA

Jose Antonio Guisasola, 6 Ac.
20600 EIBAR - GIPUZKOA
Tel. 943 20 88 57

S.A.T.
SERVICIO ASISTENCIA TÉCNICA
LABORATORIO TECNOLÓGICO ZABALA





STAR



1982

PD MODELOA

Mota: PISTOLA SEMIAUTOMATIKOA

Materialak: ALTZAIRUA, BURDINA, BURDIN URTUA; URREA



Luxuzko pistola hau María Jesús Berasaluze eibartarrak damaskinatu zuen, dragoiek, loreek eta ekialdeko inspirazioko motiboek osatutako dekorazio bikainarekin. Ofizioko maistra hau Lucas Alberdiren ikaslea izan zen Eibarko Udal Eskolan, eta urte askotan jardun zuen bertan.

Damaskinatua Ekialde Ertaineko herrialdeetako dekorazio-teknika bat da, eta burdinaren eta altzairuaren gainean metal preziatuak inkrustatzean datza.

Damaskinatu eibartarraren historia 1865ean hasi zen Eusebio Zuloagarekin, arabiarrek kanporatu ondoren penintsulatik desagertutako teknika horren berrasmatzailearekin. Jarraian, eta bere aitak hasitako prozesuarekin jarraituz, Placido Zuloaga izango da, teknika hobetzeaz gain, erabat berri-tuko duena, kalitate eta meritu artistiko handiko ekoizpena sortuz.

Artisau industria hau gure herrian berehala bereganatuko da. Horrek esan nahi du gizonez zein emakumez osatutako biztanleriaren sektore jakin bat ikasi eta prestatu behar dela. Testuinguru historiko eta artistiko honetan, lanbide artistiko hau garatu zuten emakume eibartarren belaunaldien lan garrantzitsua nabarmentzen da.



ORBEA Y CIA



1932

5. ZENBAKI MODELOA

Mota: HAURRENTZAKO KARRITOA

Materialak: BURDINA, EGURRA, LARRUA, GOMA



Orbea tradizio handiko familia dugu eibarren, baina jarduera dokumentatua XIX. mendearen erdialdetik aurrera hasten da. 1859 inguruan, arma laburrak egiteko Orbea Hermanos tailerra ireki zen. 1890. urtean, prozesu industrialetan energia elektrikoa instalatu zuen lehen enpresa izan zen. 1895ean, bazkide fundazionalak hil zirenean, enpresa Orbea y Cía izatera pasa zen.

Hogeiko hamarkadaren hasieran, Orbea familiaren zati bat banandu egin zen, eta Hijos de Orbea, S.C. kartutxo-denda sortu zuen Gasteizen 1924an. Bien bitartean, Eibarren, familiaren beste zati batek armak egiten jarraitu zuen, Orbea Hermanos izenarekin. Lehen Mundu Gerraren ondoren, Eibarko beste enpresa batzuk bezala, ekoizpena dibertsifikatzen hasi ziren, makina-erremintarako piezak, bizikletak eta haurrentzako kotxetxoak ekoiztuz. Horretarako, instalazioak nabarmen handitu behar izan ziren.

XVIII. mendearen erdialdean haurrentzako kotxetxoak modu orokorragoan agertu zirenetik, bilakaera eta aldaketak nabarmenak izan dira haietan. Hasiera batean animalien edo gizakien trakzioarekin funtzionatzen zuten kotxetxoak ziren, baina XIX. mendera arte itxaron behar zen, bultzatzeko asmatutako lehen autoak agertu arte. XIX. mendearen amaieran, lehen patentea agertu zenean, aurrerapauso handia eman zen kontzeptu berriago baterantz. Kapazua bi norabideetan jar zitekeen, eta gurpilek modu independentean funtziona zezaketen. 1930eko hamarkadan haurrentzako kotxe txikiak seriean ekoizten hasi ziren, eta material berriak—hala nola gomazko gurpilak eta gerora plastiko ariak—sartzen hasi ziren pixkanaka. Garai horretakoa da, hain zuzen ere, testu honetan aztergai dugun umeentzako kotxetxoak.



AMAYA



HAMARKADA
1960

IM93 MODELOA

Mota: IDAZTEKO MAKINA

Materialak: PLASTIKOA ETA METALA



Amaya IM 93 idazmakina Imesa-Industrial Mecanografía Eibarresa S.A. enpresak 1970eko hamarkadan Espainian fabrikatutako modelo eramangarria da. Diseinu bereizgarria du kolore laranja eta beltzean (urdinezko bertsioak ere badaude), eta retro estiloko klasikotzat hartzen da.

Gutxi gorabehera, 32 edo 33 cm zabal, 30 cm sakon eta 10 cm garai dira, eta eramangarriak dira. Teklatuak zenbakiak eta sinboloak ditu, eta tinta-kolorea aldatzeko palanka bat du.

Heldulekua duen jatorrizko kutxatila bat dauka, erraz garraiatzeko, mugikortasuna behar zutenentzat pentsatua.

Amaya markaren jatorria "Patria" modelo da, Imperial Española S.A.k ekoitzia Eibarren, eta handik aurrera Amaya izena hartu zuen. Fabrika honetako idazmakinak ezagunak izan ziren 60ko eta 70eko hamarkadetan, Espainiako bulego eta etxeetan mekanografiaren hedapen betean.

Gaur egun, bildumagileek eta retro diseinua maite dutenek estimatzen dute Amaya IM 93, bai bere erakargarritasun estetikoagatik, bai sendotasunagatik. Oraindik ere aukera ona da idazmakina mekanikoen munduan hasi nahi dutenentzat edo 70eko hamarkadako teknologia eta diseinu industrialaren adierazgarri den pieza bat bilatzen dutenentzat.

Laburbilduz, IM 93 Amayak funtzionaltasuna, eramangarritasuna eta diseinua biltzen ditu, eta mekanografia lan-bizitzarako eta bizitza pertsonalerako funtsezkoa zen garaikoa da.



OLAVE, SOLOSABAL Y CÍA



HAMARKADA
1920

EL CASCO, DUQUE ETA TEJÓN MODELOAK

Mota: SMITH & WESSON

Materialak: METALA ETA EGURRA

1920. urtean Orbea enpresako bi langilek, Juan Solozabal Mendivek eta Juan Olave Bilbaok, Olave, Solozabal SRC enpresa sortu zuten. Egin zituzten lehenengo produktuak hiru markarekin merkaturatu ziren: Duque, El Casco eta Tejón.

Hemen hiru errebolber aurkezten ditugu (Duque, El Casco eta Tejón) Olave, Solozabal SRCk sortutako kalitate handiko arma adibide gisa.



Lehenik eta behin, XX. mendeko 20ko hamarkadan egindako "El Casco" errebolber kulunkaria daukagu, "Smith & Wesson" motakoa, "Military & Police" ereduan oinarritua, 38 Smith & Wesson Long kalibrea duena. Tiro-sistema bikoitza du, akzio bikoitzekoa, kanpoko mailu kolpekariarekin. Hustuta, 825 gramoko pisua du, eta, guztira, 255 milimetroko luzera; kanoiak 125 mm-koak dira. Kirten-azalak intxaurrondo-egurrez eginda daude, eta torloju baten bidez daude lotuta.

Bestalde, "Duque" errebolber kulunkaria daukagu, XX. mendeko 20ko hamarkadan egindako arma, "Smith & Wesson" motakoa, "Military & Police" ereduan oinarritua, eta 38 Smith & Wesson Long kalibrea duena. Tiro-sistema bikoitza du, akzio bikoitzekoa, kanpoko mailu kolpekariarekin. Hustuta, 825 gramoko pisua du, eta, guztira, 255 milimetroko luzera; kanoiak 125 mm-koak dira. Kirten-azalak beltz koloreko gutapertxazkoak dira. "Duque" hitza irakur daiteke koroaren azpian, eta torloju baten bidez daude lotuta.

Azkenik, XX. mendeko 20ko hamarkadan egindako "Tejón" izeneko errebolber kulunkaria daukagu, "Smith & Wesson" ereduan oinarritua, "Military & Police" modelokoa, 32 Smith & Wesson Long kalibrea duena. Tiro-sistema bikoitza du, akzio bikoitzekoa, kanpoko mailu kolpekariarekin. Hustuta, 460 gramoko pisua du, eta, guztira, 170 milimetroko luzera; kanoiak 60 mm-koak dira. Kirten-azalak intxaurrondo-egurrez eginda daude, eta torloju batekin daude lotuta.

HELMHOLTZ



HAMARKADA
1970

SUPER 24" MODELOA

Mota: TELEBISTA

Materialak: ZURA KONTRATXAPATUA



Helmholtz Electrónica SA enpresak fabrikatu zuen, 1970ean. José Luis Elorza Chinchurreta, Jesús Ibaceta Arrate eta José Ibaceta Arrate izan ziren enpresa horren sustatzaileak, hirurak ere Eibarko Armeria Eskolako ikasleak. Enpresak 1957an ekin zion bere bideari, Eibarko Errekatxu kaleko 16. zenbakian, eta organo polifonikoak eraikitzen hasi ziren. Herman Von Helmholtz (1821-1894) zientzialari alemaniarrari zor dio bere izena.

VHF-UHF pantaila panoramiko angeluzuzena du, eta fokuratze elektrostato bidezko aluminiozko laminatu bikoitza, 125 eta 220 V-ko eta 50 Hz-ko korronterako. Txaxis bertikala du, eraigarria eta bloke bakarrekoa. Ezaugarri teknikoen artean, honako hauek nabarmentzen ziren: aparteko sentsibilitatea, gune zailenetan ere harrera ezin hobia ahalbidetzen zuena; UHF (Ultra High Frequency) sintonizadore jarraitua; SINCROVIS blokea, bisore optikoduna; ROTOMATIC kanalen hautagailua, doitasun handiko sintonia fineko doikuntzakoa; irabaziaren kontrol automatikoa, balbula bidez gobernatua; zarata-ezabatzailea; eta sinkronismo erabat automatikoak.

Telebista honen iragarkietan zirkuituaren sinpletasuna azpimarratzen zen, eskuz alanbreztatua zegoelako eta zirkuitu inprimaturik ez zuelako; horregatik, matxurak izateko oso arriskua txikia zuen. Automatismo gorenaren lortzen zuen, eta irudiaren sekulako egonkortasuna eta perfekzioa, errealismorik zorrotzenarekin lehia egiteko modukoa. Beroa ahalik eta gehien sakabanatzea lortu nahi zen, telebistaren bizitza luzatzeko.

ACHA HERRAMIENTAS



H A M A R K A D A
E Z B E R D I N A K

DIN 875 MODELO A MODELO A

Mota: ESKUAIRA

Materialak: ALTZAIRUA



DIN 875 eskuaira 1940. urtetik fabrikatzen da ACHA HERRAMIENTASen, eta gaur egun ere fabrikatzen da oraindik. Modelo hau ia ez da 85 urte hauetan aldatu, DIN 875 arauak ia zehaztapen berberak baititu hasieratik.

Arau hau Deutsches Institut für Normung-ek garatu du, eta industrian erabiltzen diren egiaztapen-eskuaierek bete beharreko zehaztasun tolerantziak ezartzen ditu. Angelu zuzenean baimendutako desbiderapena, aurpegien zuzentasuna eta gainazalen arteko paralelotasuna zehaztasunez definitzen ditu, eta eskuairak kategoria desberdinetan sailkatzen ditu, zehaztasun-mailaren arabera (0, 1 eta 2), eta aurpegien artean baimendutako desbideratze-maila adierazten du. Zenbat eta txikiagoa izan klasearen zenbakia, orduan eta zehaztasun handiagoa eskatzen da. Arau horri esker, bere espezifikaziopean fabrikatutako edozein eskuadrak nazioartean onartutako kalitate-estandar bat bermatzen du.

DIN 875 arauaren arabera fabrikatutako eskuairak "L" forma klasikoari eusten dio, eta normalean kalitate handiko altzairu arteztuan ekoizten da, dimentsio-egonkortasuna eta higadurarekiko erresistentzia ziurtatzeko. Gainazalak zehaztasun handiz artezten dira, 90°-ko angelua eta aurpegien lautasuna finkatutako tolerantzien barruan mantentzen direla ziurtatzeko. Azkenik, modu bateratuan kontrolatzen dira, guztiek araua betetzen dutela bermatzeko. Eraitza tresna sendoa, fidagarria eta zehatza da, funtsezkoa pieza mekanikoak egiaztatzeko eta denboran zehar doitasun konstantea eskatzen duen edozein lan egiteko.

G.A.C



1912

TIGRE MODELOA

Mota: KARABINA

Materialak: METALA ETA EGURRA



1892an elkarte gisa sortu zuten GAC enpresa (Garate, Anitua y Compañía) Juan Jose Larrañagak, Jose Francisco Anituak, Eulogio Anituak eta Nemesio Astaburuagak. Eibarko gainontze-ko tailerrek bezala, hasieran armen ekoizpenean jardun zuen enpresak: pistolak, errebolberrak, errifleak eta eskopetak. Tigre karabina, Winchester espainiarra izenez ere ezaguna, GAC Eibarko armagintza-lantegi txikian pentsatu zuten arma mota hauek segurtasun indarrentzat eta herritarrentzat produktu bikainak izan zitezkeela. Horrela, 1919an Tigre karabina jaio zen, Winchester 1892 modeloaren kopia, 1926ko martxotik aurrera Guardia Zibilaren Trenbide-Dibisioaren arauzko arma izatera iritsi zena.

Bi aldaera nagusi fabrikatu ziren (kanoi motza eta luzea), baina biak Winchester 1892 ereduaeren egitura mekanikoan oinarrituta zeuden.

Dena dela, patente eta lizentzia kontuengatik, GAC enpresak modelo luze bat sortzea erabaki zuen, mekanikoki motzaren antzekoa, baina aldaketa estetiko txiki batzuk zituen. Horrela, plagio-salaketa saihestuko zuten. Ikusten duzuen pieza, zehazki, palanka-sistemadun modelo luzea da. 540 mm-ko kanoi-luzera du, 44-40 WCF kalibrea, 2800 gr-ko pisua, ildaskadun arima eta kulata intxaurrezko. Bai GACek egindako Tigre karabinak, bai Oviedoko Armen Fabrika ekoiztutako kopiek Gerra Zibilean asko erabili ziren, bereziki bando errepublikanoan. Gaur egun, bere ekoizpenetik 100 urte pasa eta gero, partikularrek modelo hau erabiltzen jarraitzen dute ehiza-jardueretarako. Horrek berak armaren kalitatearen gaineko erreferentzia ematen digu.

LAMBRETTA



1957

LD 125 MODELOA

Mota: SCOOTER MOTOZIKLETA

Materialak: BURDIN URTUA, ALTZAIRU KROMATUA, LATOIA



Lambretta eskuterraren Eibarko historiaren jatorria 1952ko urte urrunekoa da, eta, zehazkiago, ekainaren 17koa. Garai hartan, euskal industrialari talde batek, Alfa, ABC eta Valenciaga Hermanos buru zituztela, Lambretta Locomociones S.A. enpresak sortu zituen italiar marka bereko eskuterrak eta motorrak lizentziapean fabrikatzeko. Instalazio horiek Eibarren 1953ko maiatzaren 25ean hasi ziren, eta urtebete geroago inauguratuko ziren, 1954ko ekainaren 10ean, Italiatik etorritako hiru probalariren eskutik, hain zuzen ere Bartzelonako Erakustazoka Ofizialean eta Nazioarteko Erakustazokan berehala fabrikatzekoak ziren Lambrettaiko bi barianteak erakusten ari zirenean.

Hasierako plantillak 28 langile propio zituen instalazio horietan, eta hurrengo hilean, 1954ko uztaillean, hasi ziren saltzen, «125 LD» modeloa (Espainian «A» edo «karrozeria» izenez ezagunagoa), eta berehala «B» patinetea («D» bertsioa Lambretta nomenklaturan).

1954ko produkzioa 483 unitatekoa izan zen, aintzat hartzeko moduko kopurua, instalazioen eta langileen goranzko erritmo bera izango duena: 1955ean 3.881 unitate, 1956an 9.351 unitate, 1957an 12.269 unitate eta 1958an 17.080 unitate. Jarraian, behera egin zuen, Egonkortze Nazionalen Planaren ondorioz motozikleten Espainiako gainerako markak bezala.



DANIEL ACHA



HAMARKADA
1940

JASO MODELOA

Mota: ILEAPAINDEGIRAKO AULKIA

Materialak: METALA, PLASTIKOA, ZUMEA



Daniel Acha zenak patente amerikarrez egindako Jaso besaulkia, ileapaindegietarako. "Acha y Basterra" enpresa Matsaria kalean (11. zenbakian) zegoen. Faustino Basterra arkitektuak egin zuen eraikina, 1941ean, eta handik urte batzuetara (1946an) jaso zituzten lantegiaren gaineko etxebizitzak. Basterrak beste tailer eta etxebizitza-tailer batzuk diseinatu zituen, Eibarren bertan.

40ko hamarkadako Jaso ile-apaindegirako besaulkia XX. mendearen erdialdeko altzari profesionalen pieza enblematikoa da, dotoreziaren, sendotasunaren eta artisautzaren ikurra. D. Acha etxe ospetsuak egin zuen Eibarren, eta metalzko egitura sendoa eta kromozko eta larruzko edo skayzko tapizeria finak ditu, gehienetan tonu ilunetan, hala nola beltza, bordelea edo botila berdea.

Diseinua funtzionaltasunagatik eta erosotasunagatik nabarmentzen da: euskarri etzangarriak, buru-euskarri doigarriak eta igotzeko sistema hidraulikoak bezeroaren posizioa doitasunez egokitzea ahalbidetzen zuten, eta hori berritzaila zen garai hartarako. Haren oinarri zirkular astun eta egonkorrak segurtasuna bermatzen zuen bizarra mozteko lanetan, eta metal kromatuzko beso-euskarriek, berriz, bereizketa eta modernotasun kutsua ematen zuten.

40ko hamarkadako Jaso besaulkia, lerro biribilekin eta artisauekin, bizargintza tradizionalan funtsezko elementua izateaz gain, estatusaren eta estiloaren sinboloa ere izan zen. Gaur egun, pieza horiek bildumako objektu edo apaingarri vintage gisa baloratzen dira, antzinako bizartegiaren giro nostalgikoa eta garai hartako diseinu industrial eibartarraren bikaintasuna gogoratu ekarritik.

ORBEA



HAMARKADA
1940

MOSQUITO MODELOA

Mota: BIZIKLETA HIBRIDOA

Materialak: ALTZAIRUA, ALUMINIOA, KAUTXUA, LARRUA



Gerraostean, garraiobide ekonomiko, erraz eta erresistente baten beharrak ibilgailu arinen sorrera bultzatu zuen, bizikleta baten praktikotasuna motor txiki baten potentziarekin konbinatuz. Testuinguru horretan sortu zen Orbeako Mosquito eredua, bizikleta motorduna, garraio pertsonalaren eboluzioan etapa liluragarria irudikatzen duena.

Mosquito modeloa ez zen motozikleta bat izan, baizik eta Orbea bizikleta bat, italiar jatorriko Mosquito Garelli motor laguntzaile batekin hornitua. 1940ko eta 1960ko hamarkaden artean Europan oso ezaguna izan zen motor horrek aukera ematen zuen ohiko edozein bizikleta ziklomotor bihurtzeko, eta gehieneko abiadura 40-45 km/h-koa zen, gutxieneko kontsumoarekin, 1,5 litro 100 kilometroko.

49 cc-ko, bi aldiko Mosquito (Garelli) motor laguntzailea atzeko gurpilaren gainean muntatzen zen, eta pneumatikoarekin zuzeneko kontaktua egiten zuen arrabol baten bidez transmititzen zuen mugimendua. Sistema burutsu horri esker, mantentze-lanak nahiko errazak ziren eta funtzionamendu fidagarria zuten. Bertsio modernoetan Centrimatic enbrage automatiko bat gehitu zen, abiatzea eta gidatzea errazten zuena. Bere alderdi teknikitik haratago, Orbea Mosquito taldeak asmamenak eta beharrak sormenezko konponbideak ekarri zituzten garaia sinbolizatzen du. Ibilgailu ezin hobea zen garai hartako ibilgailu garestien edo garraio publiko eskasaren mende egon gabe distantzia ertainak egin behar zituzten langile, ikasle edo mezularientzat.

ALFA



HAMARKADA
1960

ALFAMATIC 103 MODELOA

Mota: JOSTEKO MAKINA

Materialak: BURDIN URTUA, ALTZAIRU KROMATUA, LATOIA



Alfaren Alfamatic 103 modelo josteko makina bat da, bere garaian modernitatearen benetako ikono bihurtu zena, diseinu funtzionalari eta prestazio aurreratuari esker. Eredu honen ezaguerri nagusia aldakortasuna da, jostura zuzenak eta sigi-saga egiteko aukera ematen baitu. Horrez gain, puntada bakoitzeko bi birako anezka bat eta tirahilo artikulatu bat ditu, lanari doitasun eta kalitate handiagoa emateko.

Makina hau batez ere etxerako sortu zen, baina jantzigintzan eta jostundegian ere erabili zen. Alfa enpresa 1920an sortu zen Eibarren, eta Espainiako kooperatiba industrial aitzindarietakoa izan zen. Bertan, langileak akziodun eta jabe ziren, eta horrek enpresa-kudeaketarako modu berezia markatu zuen. Diseinuari dagokionez, Alfamatic lerroa Bauhaus-en printzipio funtzionalistetan oinarritu zen, lerroak sinplifikatuz eta sendotasuna eta erabilgarritasun teknikoak nabarmenduz, eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren aldeko alferrikako apaingarrietatik urrunduz.



B.H



HAMARKADA
1940

BH TURISMO MODELOA

Mota: PASEORAKO BIZIKLETA

Materialak: ALTZAIRU KARBONOA , LARRUA ETA BEIRA



Paseorako bizikleta da, dotorea eta klasikoa; piñoi finkoa du eta martxa bakarra. Urdina da, irudi geometrikoak ditu, eta BH markaren identifikazio-plaka. Larruzko aulkia eta jatorrizko indar-getze-sistema nabarmentzen dira. Fokua Rinder enpresak egin zuen; enpresa hori Gernikan ezarri zen 1953an eta bi gurpiletako ibilgailuentzako argiztapen-sisteman espezializatu zen.

Bizikletazaleek diote mota honetako bizikletak bikainak direla. Pieza bakoitza maitasun handiz diseinatzen eta fabrikatzen zen. Arreta handia jartzen zitzairen koadroari, lohi-babesari, argiei eta bizikleta-parrillari. Osagai asko neurrira egiten ziren.

Beistegui Hermanos enpresa 1909an sortu zuten Cosme, Domingo eta Juan Beistegui Albistegui anaiek, beren ekintzailtza-espírituak bultzatuta. XX. mendearen hasieran, Mauser pistola fabrikatzen zuten. 1923ko armamentu-krisiaren ostean, bizikletak egiten hasi ziren eta Eibarko bizilagunei, euren lehen bezeroei, garraiobide azkar, eroso eta merkea emateagatik egin ziren ezagun. Haien bizikletak arinak, bizkorak eta fidagarriak ziren. Kirolaren munduan ere arrakasta handia lortu zuten.

1959an Gasteizera eraman zuten egoitza, eta han jarraitu zuten txirrindularitzako diziplina guztietarako goi-mailako bizikletak eta osagarriak fabrikatzen.



BOJ



1932

BÚHO MODELOA

Mota: KORTXO-KENTZEKOAK

Materialak: ALTZAIRUA ETA ZINKA



"Búho" XX. mendeko euskal diseinu industrialaren objektu adierazgarrienetako bat da. Manuel Barrenechea, Bernardo Olañeta eta Vicente Juaristik 1905ean Eibarren sortutako BOJ enpresak fabrikatu zuen tresna hau, tradizionalki armagintzan jardun zuen eta berrikuntza metalurgikoaren eta diseinu funtzionalaren bidez bere burua berresmatzen jakin zuen enpresak.

Testuinguru horretan, 1932. urte inguruan, palanka bikoitzeko sakakortxo ospetsua jaio zen, "Búho sakakortxo" izenez ezaguna.

Mekanismoaren beraren itxuratik datorkio izena: goiko bi errematxe handiek, hontz baten begiak gogorarazten dituzte, eta alboko palankak hegala zabalduen antzekoak dira. David Olañetari egozten zaion eta BOJk patentatzen duen diseinu burutsu honek funtzionaltasuna, estetika eta ergonomia uztartzen ditu, diseinu industrialeko puntako pieza bihurtuz.

Modeloa, BOJ 502E bezala identifikatua, laster nabarmendu zen fabrikazioaren kalitateagatik: espiral sendo eta ezin hobeto zentratua, palanka leuneko sistema eta akabera metaliko erresistentea, Eibarko tradizioaren isla altzairuaren lanean. Tresna gisa zuen eraginkortasunaz gain, gogora ekartzeko zuen moduak nortasuna eta xarma zituena eguneroko objektu bihurtu zuen.

Hamarkadak igaro ahala, "Búho" BOJ markaren ikur gisa eta euskal industria-ehunak garai berrietara egokitzeko duen gaitasunaren sinbolo gisa finkatu zen. Beti Eibarren egina, kortxo-kentzeko hau herrialde askotara esportatu zen, eta etengabeko produkzioan jarraitu zuen. Hala, Euskal produktu ezagunenetako bat bihurtu zen nazioartean, metalezko tresneriaren esparruan.





85 urte doitasuna fabrikatzen.

Ingurune profesionaletan errendimendu, fidagarritasun eta zehaztasun handiena bermatzeko garatutako doitasun-erreminten soluzioak.

943 12 04 24
info@acha.com
Otaola Etorbidea, 13



CTT Automoción
Ibur Erreka poligonoa Z/G
48250 Zaldibar
Tel: 943 82 00 55



urkotronik

943 20 31 12
urkotronik.com

JAZ ZUBIAURRE



HAMARKADA
1920

1 MODELOA


Mota: ESKUILA METALIKOA

Materialak: ALTZAIRU UHINDUA



